

María Maizkurrena eta Eli Tolaretxipi, Foru Liburutegiko Irakurketa Txokoko protagonista

Ekimen hau otsailean hasi zen eta azaroan amaituko da; Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura antolatzen ditu saioak, hilean behin, gaztelaniaz eta euskaraz, txandaka.

Irakurle talde horien bidez, irakurketan interesatuta dauden eta esperientziak, sentsazioak eta pentsamenduak komunikatzeko gogoia duten pertsonak biltzen dira. Idazle eta irakurleen arteko topaleku bilakatu da. Egileek beren azken lana komentatuko dute edo idatzi edo irakurri dituztenen artean gogokoena, eta entzuleak beren gogoeten partaide egingo dituzte.

Zikloa azaroan amaituko da, Bernardo Atxaga idazle ospetsuarekin. Orain arte, José Fernández de la Sota, Yurre Ugarte, Luisa Etxenike, Anjel Lertxundi eta Francisco Javier Irazoki bertaratu dira besteak beste literatura hitzordura.

Idazleen curriculumak:

Maria Maizkurrena (Londres, 1962)

Hispaniar Filologian lizentziatua. Los otros reinos (1987), Los cantos del Dios oscuro y otros poemas (1989), Una temporada en el invierno (1991), Viento del Norte (1992) eta Tiempo (2000) poemak aipatu behar dira. Narratzaile gisa Adiós a doña Laura (2000) eleberri laburra argitaratu du. Gaur egun 'Ipar Atea' aldizkaria zuzendu eta diseinatzen du, eta El Correo egunkarian zutabegilea da.

Eli Tolaretxipi (Donostia, 1962)

Ingeles Filologian lizentziatua eta poesia itzultzailea. Bere lanen artean aipatu ahal dira Amor muerto, Naturaleza muerta, Los lazos del número eta El especulador.